

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA  
OFICINA DE COOPERACIÓN AL DESARROLLO

## UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOAREN MEMORIA

2011/12 ikasturtea





## 1. AURKEZPENA.

Abenduaren 21eko 6/2001 Legeak, Unibertsitateenak, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bidez aldatu zenak, lehenengo aldiz aipatzen du, bere hitzaurrean, unibertsitateak oinarritzko balio transmititzaile gisa duen eginkizuna eta gaineratzen du elkarrizketa, bakea eta herrien arteko lankidetzak unibertsitateak bereziki zaindu behar dituen balioak direla. Era berean, 92. artikuluan, nazioarteko lankidetzari eta solidaritateari buruzkoan, honakoa aipatzen da: **“unibertsitateek beharrezko sustatze lanak egingo dituzte bertako kideek nazioarteko lankidetzako eta solidaritateko jarduera eta proiektuetan parte har dezaten.** Horrez gain, aurrerabide solidariorako funtsezko elementu gisa hartuta, bakearen kultura, garapen iraunkorra eta ingurumenarekiko errespetua indartzen laguntzen duten jarduerak eta ekimenak faboratuko dituzte”.

Bestalde, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuek lehenengo tituluan, UPV/EHUren izaerari eta helburuei buruzkoan, adierazten dute Unibertsitateak nazioarteko trukea eta lankidetzak indartuko dituela, eta, bereziki, garapenerako lankidetzak aipatzen da. Garapenaren aldeko unibertsitate lankidetzak bertan parte hartzen duten pertsonak aberasten ditu, bai gizaki gisa bai akademikoki, baita beren unibertsitateak ere. Horren haritik, **UPV/EHU Garapenerako Lankidetzako Arloko Unibertsitateen Jokabide Kodeari atxiki zitzaion. Aipatutako kodea Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziako (CRUE) Nazioarteko Harremanetarako Espainiako Unibertsitate Batzordeak (CEURI) onartu zuen, 2007ko otsailaren 8an egindako Gobernu Kontseiluan.**

**Jokabide Kodearen arabera: “Garapenerako unibertsitate lankidetzak unibertsitateko komunitateak behar bereziak dituzten herrialdeen gizarte eraldaketara bideratutako jarduera multzoa da; jarduera horiek bakearen, berdintasunaren, giza garapenaren eta ingurumenaren jasagarritasunaren alde egin nahi dute, eta eraldaketa horretan erakundeen indartzea eta sendotze akademikoak berebiziko garrantzia dute”.**

**Garapenerako Lankidetzako Bulegoa** Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzari atxikitako zerbitzu bat da, UPV/EHUk sortutakoa, *garapenerako unibertsitate lankidetzak* sustatzeko. Testuinguru horretan, garapenerako lankidetzak dagokien gizartearen ahalmenak indartzea (eta baita komunitatearenak ere) helburu duen unibertsitate komunitate osoaren ahalegin solidarioa da, unibertsitate eta hezkuntza sektoreei arreta berezia ematen diena. Zehatzago esanda, Bulegoaren helburua unibertsitate komunitateko sektore desberdinek garapenerako lankidetzaren arloan egiten dituzten ahaleginak koordinatzea, babestea eta bideratzea da.



## 2. HELBURU OROKORRAK.

- Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza unibertsitatearen gizarte eginkizunean txertatzea.
- Elkartasun balio unibertsitatean oinarritutako prestakuntza sustatzea, eta gizarte arazoei buruzko eztabaidetan parte hartzea, zuzentasuna, jasangarritasuna eta giza eskubideen errespetua oinarri hartuta.
- Munduko hainbat lekutan gizakiaren garapena baldintzatzen duten era askotako arazoak ezagutzea, ikertzea eta hedatzea bultzatzea, unibertsitateko kideak arazo horietaz jabetu daitezen.
- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren zerbitzura giza baliabide espezializatuak jartzea, eta beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin batera, lankidetzarako proiektu eta programak abian jartzeko zereginen parte hartzea.
- Elkartasun aktiboa eta boluntario lana indartzea unibertsitateko kideen artean, ikasleen artean batik bat, eta haien boluntario lana erraztea esparru espezifiko batean, programa bereziak martxan jarri edo ikasleak beste erakunde batzuetara bideratuz.

## 3. HELBURU ESPEZIFIKOAK.

1. **Garapenerako Lankidetzeta Bulegoa** indartzea, garapenerako lankidetzaren arloko praktiken eta karrera amaierako proiektuen UPV/EHUko programaren administrazio atala izan dadin.
2. Garapenerako lankidetzaren arloko **karrera amaierako praktiken eta proiektuen programa** gestionatzea eta ebaluatzea.
3. **Garapenerako unibertsitate lankidetzarako proiektuak eta ekintzak burutzeko diru laguntzen deialdia** zabaltzea eta gestionatzea.
- 4.- **Garapenerako unibertsitate hezkuntzaren arloko diru laguntzen deialdia** zabaltzea eta gestionatzea.
5. **UPV/EHU**n garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzari buruzko ikastaro monografikoak abian jartzea.
6. **Beste erakunde batzuekin batera garapenerako lankidetzeta bultzatzeko hitzarmenak izapidetzea** sustatzea.
7. **Irakasle eta ikertzaileei, AZPko langileei eta ikasleen elkarteei garapenerako lankidetzako proiektuak gauzatzeko aholkularitza teknikoa eskaintzea.**
8. **Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzaren arloko jardunaldiak antolatzea** unibertsitateko kideentzat, espiritu kritikoa sustatzeko, baita Iparraren eta Hegoaren arteko harremanak eta generoen arteko desberdintasunezko harremanak ulertzeko eta horiez kontzientziatzeko ere. **4. 1. Beste erakunde batzuekin batera garapenerako lankidetzeta bultzatzeko hitzarmenak** sustatzea.



## 4. UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA

**Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa**, Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzari atxikita dagoena, UPV/EHU sortutako zerbitzu bat da, *garapenerako unibertsitate lankidetzaren sustatzeko*; hau da, unibertsitateko kideek lankidetzaren helburu diren gizarteetako eta euren gizarteko gaitasunak – bereziki unibertsitatearen eta hezkuntzaren sektoreetakoak – indartzeko egiten duten lan solidarioa sustatzeko. Zehazkiago, bulegoaren helburua da unibertsitateko sektore desberdinek garapenerako lankidetzaren arloan egiten duten lana koordinatzea, bultzatzea eta bideratzea.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak hainbat **jarduera** burutzen ditu garapenerako unibertsitate lankidetzaren hainbat esparrutan. Garrantzitsuenen artean, honako hauek:

### 4.1. Beste organismo eta instituzio batzuekin batera gauzatutako lankidetzaren hitzarmenen sustapena.

Azken urte hauetan, hitzarmenak sinatu ditugu lankidetzarako garapenarekin zerikusia duten hainbat unibertsitate eta instituzioekin. Hitzarmen horien helburu nagusia hedapen programetako lankidetzaren sustatzea da, baita irakaskuntzaren, prestakuntzaren eta ikerketaren arloko trukea eta lankidetzaren ere.

2011/12 ikasturtean, honako hitzarmen hauen izapideak egin ziren UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren Bulegoan:

#### Beste unibertsitate batzuekin egindako hitzarmenak:

- Nikaraguako Unibertsitate Nazional Autonomoaren (UNAN), Bogotako Jorge Tadeo Lozano Unibertsitatearen (UJTL) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (Itsas Biologia eta Bioteknologia Esperimentalen Ikerketa Zentroa; Plentziako Itsas Estazioa) arteko lankidetzaren hitzarmena, ikertzaileen prestakuntza eta mugikortasuna sustatzeko eta lankidetzaren bidezko ikerketa ahalbidetzeko, programa honen barnean: “Ingurumen estresaren biomarkagailuak Karibeko kostaldeko ekosistemen osasuna ebaluatzen tresna gisa”.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen (Geodinamika Saila), Felix Baltistan Fundazioa GGKEaren eta erakunde horren Pakistango zatiaren (Felix Iñurrategi Foundation Baltistan Machulo) arteko lankidetzaren hitzarmena, diagnosi programak barne hartzen dituen zenbait jarduera gauzatzeko, abiapuntu gisa proiektu hau hartuta: “Hushé haraneko eremu populatuetako arriskuen azterketa (Karakorum mendikatea, Baltistan, Pakistan). Felix Baltistan Fundazioaren jarduketaren esparrua. Talisko kasu zehatza: Arrisku mapen azterketa eta sorkuntza, herria berreraikitzen segurtasun marjinak zehatzuz”.
- Juan Misael Saracho Unibertsitate Autonomoaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHUren Medikuntza eta Odontologia Fakultatea) arteko lankidetzaren hitzarmena, ikertzaileen prestakuntza eta trukea ahalbidetzeko, eta ikerketa kooperatiborako,



proiektu honen barnean: “Ikerketa esperimental eta klinikoa sendotzea Juan Misael Saracho Unibertsitate Autonomoko Medikuntza ikasketetan (Tarija-Bolivia)”.

- Federación Internacional de Fe y Alegría erakundearen, Universidad Mayor de San Simón unibertsitatearen (UMSS) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmen espezifikoak, Federación Internacional de FE Y ALEGRIA erakundearen hezkuntza zentroetan, bertako 2. programaren esparruan (“Lanerako prestakuntza”), lan egiten duten hezitzaileek UMSSeko Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Graduondoko Sailak, Federación Internacional Fe y Alegría erakundearen 2. programak eta UPV/EHUren Didaktika eta Eskola Antolakuntza Sailak batera eta modu koordinatuan antolatutako prestakuntza proposamenetan parte har dezaten. Horrez gain, erakunde horiek batera lan egingo dute hainbat arlo estrategikotan: hezkuntza ikerketa; irakasleen eguneratzea, prestakuntza eta hobekuntza; hezkuntzarako teknologia; etab.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta Piurako Unibertsitate Nazionalaren (UNP, Peru) arteko oinarritzko lankidetzaren hitzarmena, erakunde horien artean ahalik eta lankidetzaren estuena ahalbidetzeko, garapenerako lankidetzaren proiektuak gauza ditzaten (akademikoak eta zientifikoak), bi erakundeek giza baliabideen eta baliabide materialen koordinazio eta erabilera egokia sustatuz.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Aljeriako Abderrahmane Mira-Bejaia Unibertsitatearen (Zientzia Zehatzen eta Natura eta Bizi Zientzien Fakultatea) arteko oinarritzko lankidetzaren hitzarmena, baterako ikasketa, truke eta lankidetzaren programak garatzeko, irakaskuntzaren, ikasleen prestakuntzaren eta ikerketaren arloan.
- Madrilgo Unibertsitate Autonomoarekin egindako hitzarmena, Nazio Batuen UNITEs beken 2012ko deialdian parte hartzeko oinarriak ezartzen dituen, ikasleek Nazio Batuen programetan duten parte-hartzea indartuz.

#### Garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten elkarte eta fundazioekin egindako hitzarmenak:

- Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Kultura, Communication y Desarrollo (KCD) elkartearen arteko oinarritzko lankidetzaren esparrua, hedapen, truke eta lankidetzaren programetan parte hartzeko, irakaskuntzaren, ikasleen prestakuntzaren eta ikerketaren arloetan.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Paz con Dignidad elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia garatzeko.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen (Donostiako Erizaintzako UE) eta Medicus Mundi Gipuzkoa elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, informazioa hedatzeko eta trukatzeko programetan eta bi erakundeek lantzen dituzten esparruetan elkarlanean aritzeko.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen (Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) eta Bidez Bidez Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkartearen arteko hitzarmena, garapenerako lankidetzaren arloko practicum zentro horretan egiteko.



2010/11 ikasturtean sinatu diren beste hitzarmen batzuk ere azpimarratu behar ditugu, irakasleen mugikortasunerako, ikasleen praktiketarako eta karrera amaierako proiektuetarako programen oinarri izan direnak ikasturte honetan:

- Granmako Unibertsitatearekin (Kuba) egindako hitzarmena, UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko eta Granmako Nekazaritza Zientzien Fakultateko irakasleen mugikortasuna ahalbidetzeko.
- Pastazako (Ekuador) Kultura Arteko Hezkuntza Elebidunaren Probintzia Zuzendaritzarekin egindako hitzarmena, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Haur eta Lehen Hezkuntza titulazioetako ikasleek beren irakaskuntza praktikak egin ditzaten.
- Gure praktiken eta karrera amaierako proiektuen programan parte hartzen duten GGKE desberdinekin egindako hitzarmenak (Medicus Mundi, Dentistas Sin Fronteras, Haurralde Fundazioa, OSALDE, NUYUN, etab.).

#### **4.2. Garapenerako unibertsitate lankidetzari lotutako proiektuak eta ekintzak gauzatzeko diru-laguntzen deialdia.**

Urteroko deialdi honen helburua UPV/EHUko unibertsitate komunitateak garapenerako unibertsitate lankidetzaren proiektuetan eta ekintzetan duen parte-hartzea babestea eta sustatzea da. Proiektu edo ekintza horiek giza garapen maila txikiagoa duten herrialdeetako biztanleen bizi kalitatea eta baldintzak hobetzen lagunduko dute, baita unibertsitate komunitatean kontzientzia kritikoa eta konpromiso solidarioa sortzen ere (gizartea eraldatzeko ekintzen bidez). Helburu horrekin, UPV/EHUk diru-laguntzak ematen ditu bertako unibertsitate komunitateko pertsonak gauzatzeko garapenerako lankidetzaren proiektuak edo ekintzak guztiz edo partzialki finantzatzeko. Proiektu horiek hainbat arlotakoak izan daitezke: irakaskuntza eta prestakuntza; garapenerako ikerketa aplikatua; informazioaren, ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia; garapen bidean dauden herrialdeetako unibertsitateen sendotze instituzionala; eta garapenerako hezkuntza.

2011/12 ikasturtean, deialdi honetara bideratutako zenbateko ekonomikoa 50.000 eurokoa izan da. Proiektu bakoitzak gehienez 15.000 euro jaso ditu, eta ekintza proposamen bakoitzak gehienez 5.000 euro. Laguntzak honela adjudikatu ziren:



PROIEKTUAK	ARDURADUNA	ADJUDIKATUTAKO ZENBATEKOA
UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren arloko karrera amaierako proiektuen programa finkatzea.	Unai Villena (ISF) Bilboko Ingeniaritza GET, Bizkaiko Campusa	15.000
Huishé haraneko eremu populatuetako arriskuak aztertzea (Karakorum Parke Nazionala, Baltistan, Pakistan). Felix Baltistan Fundazioaren jarduketa esparrua. Talisko kasu zehatza: Arrisku mapak aztertzea eta sortzea, herria berreraikitzeke segurtasun marjinak zehatzuz.	Tomás Morales Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Bizkaiko Campusa	14.550 euro
Ekuadorko kultura arteko hezkuntza sistema elebiduna indartzea-II.	María Consuelo Vázquez Gasteizko Irakasleen UE, Arabako Campusa	14.450 euro
Herritarren kazetaritza garapenerako lankidetzan: Agencia dâ Boa Notícia agenziaren kasua (Guajuviras, Brasil).	Maria José Cantalapiedra Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Bizkaiko Campusa	1.150 euro
<b>EKINTZA</b>		
Emakume indigenak: beren gorputzaren eta sexualitatearen burujabe.	Iñaki Zabaleta Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Gipuzkoako Campusa	4.850

#### 4.3. Unibertsitate Elkarteei zuzendutako Garapenerari Laguntzeko Unibertsitate Heziketa Proiektuetarako Diru-laguntzen Deialdia.

UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzeta Bulegoak **Unibertsitate Elkarteei zuzendutako Garapenerari Laguntzeko Unibertsitate Heziketa Proiektuetarako Diru-laguntzen Deialdia** jarri du martxan 2011/12 ikasturtean, lehen aldiz.

Deialdi honen helburua UPV/EHUko unibertsitate elkarteek eta ikasleek garapenerako hezkuntza proiektuetan parte hartzea da. Proiektu horiek unibertsitate komunitatean kontzientzia kritikoa eta konpromiso solidarioa sortzen lagunduko dute, gizartea eraldatzeko ekintzen bidez. Hala, unibertsitate elkarteek gauzatutako garapenerako unibertsitate hezkuntzaren arloko proiektuak guztiz edo partzialki finantzatzeko diru-laguntzak ematen dira. Garapenerako hezkuntzarekin zerikusia duten proiektu horiek arlo horri dagokion estrategia batekin edo gehiagorekin (sentsibilizazioa, prestakuntza eta irakaskuntza, ikerketa, eragin politikoa eta gizarte mobilizazioa) lotura izango dute, eta unibertsitate komunitatearen (bereziki, ikasleen) parte-hartzea sustatzea izango dute helburu, gizartea eraldatzeko ekintzen bidez.



Deialdi honetan parte hartuko dute ikasleen parte-hartzea duten eta UPV/EHUren Elkartearen Erregistroan izena emanda dauden unibertsitate elkarteek. Elkarre horiek garapenerako hezkuntza proiektuak aurkeztu beharko dituzte, beren kabuz edo sailekin, eskolekin, fakultateekin edo Unibertsitateko beste unitate administratibo edo akademiko batzuekin batera.

Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeekin (GGKE) ere aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak, baldin eta erakunde horiek behar bezala inskribatuta badaude Euskal Autonomia Erkidegoko irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroren batean. UPV/EHU.

2011/12 ikasturte honetan, deialdi honetara bideratutako zenbatekoa 5.000 eurokoa da.

PROIEKTUAK	ARDURADUNA	ADJUDIKATUTAKO ZENBATEKOA
“PRACTICA L’OFF” kanpaina sendotzea, UPV/EHU unibertsitateko borondatezko lana sustatuz.	Vanesa Calero (ISF)	5.000

#### 4.4. Irakasle eta ikertzaileentzako, AZPko langileentzako eta ikasleen erakundeentzako aholkularitza teknikoa.

Lankidetzaren Bulegoak lankidetzaren proiektuak egiteko aholkularitza teknikoa ematen die unibertsitate komunitateko kideei, bai proiektuen metodologiei eta segimenduari dagokienez bai kanpoan aurki daitezkeen bestelako funtsei dagokienez. Proiektu eta ekintzetarako diru-laguntzen deialdira proposamenak aurkezten dituzten unibertsitate komunitateko pertsona gehienek erabiltzen dute aholkularitza teknikorako zerbitzua.

Oro har, Bulegoak aholkularitza ematen du; ez deialdi honetarako bakarrik, baita beste instituzio batzuetan aurkezteko proposamenak egiteko behar adinako ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko aholkularitza ere.

#### 4.5. Unibertsitate komunitateari zuzendutako garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren arloko jardunaldien eta jardueren antolakuntza.

Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren funtzio garrantzitsuenetako bat, unibertsitate komunitateari zuzendutako garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren arloko zerbitzua den heinean, unibertsitate komunitateari (irakasle eta ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak) hegoaldeko errealitatearen berri ematea eta horren inguruko sentsibilizazioa piztea da. Ez hori bakarrik, gure gizarte “garatuetan” egin behar diren aldaketan berri eman behar du, baldin eta iparralde-hegoalde harremanak errespetuan, berdintasunean, zuzentasunean eta justizian oinarrituta egotea lortu nahi badugu.





2011/12 ikasturtean, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak bi jardunaldi antolatu zituen:

- *Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren Sarean Lan egitea, 2011ko abenduaren 19an, UPV/EHUren Paraninfoan (Abandoibarra, Bilbo).*
- *Garapenerako Lankidetzaren Feminista Ikuspegitik, 2011ko maiatzaren 2an, UPV/EHUren Paraninfoan (Abandoibarra, Bilbo).*

Horrez gain, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak, beste zenbait erakunderekin batera, gure unibertsitate komunitateari zuzendutako sentsibilizazio ekintza hauetan hartu zuen parte 2011/12 ikasturtean:

EKINTZAREN IZENBURUA	EKINTZA MOTA
UDA SOLIDARIOA KANPAINA (BOLUNTA AGENTZIA)	KANPAINA SOLIDARIOA
GARAPEN LANKIDETZA FEMINISTA IKUSPEGITIK	HITZALDIA
MINUTU BATEKO BIDEOEN TAILERRA, "MUJERES EN CORRESPONDENCIA" (KCD)	UDA IKASTAROA
EMAKUMEEN ZINEMA ARABIAR-IBEROAMERIKARRAREN KARABANAREN "ZINEMAGILE ARTEA" ERAKUSTALDIA (KCD)	UDA IKASTAROA
LA PAZ ES POSIBLE FUNDAZIOAREN PLATAFORMA	JAIALDIA

#### 4.6. UPV/EHUko ikasleentzako garapenerako lankidetzaren eta hezkuntza arloko ikastaro monografikoen antolakuntza.

Hainbat unibertsitate ikastegik, UPV/EHUren Hegoa Institutuak eta zenbait euskal GGKEk eta unibertsitate elkartek antolatuta, garapenerako lankidetzari eta hezkuntzari buruzko ikastaro monografikoak egiten dira urtero UPV/EHUren hiru campusetan, ikasleei zuzenduta.

Ikastaroen edukiak eman nahi diren ikastegietako titulazioetara daude egokituta, eta garapenerako lankidetzaren proiektuetan praktikak egin nahi dituzten ikasleek nahitaez hartu behar dute parte horietan. Gutxienez saioen % 80etara bertaratzen diren ikasleek aukera askeko kredituak eta ECTS kredituak jasoko dituzte, baldin eta ikastaroei dagozkien lanak ere egiten badituzte.

2011/12 ikasturtean guztira **zortzi ikastaro monografiko** antolatu ziren. Hona hemen ikastaro horiek eta izan zituzten parte-hartzaile kopuruak:



<b>IKASTAROAREN IZENA</b>	<b>ZER IKASTEGITAN EMATEN DEN</b>	<b>IKASLE KOPURUA</b>	<b>EMAKUMEAK</b>	<b>GIZONAK</b>
<b>Garapenerako lankidetzaren solidarioa</b>	Gasteizko Irakasleen UE	11	6	5
<b>Lankidetzaren sarrera eta giza garapenerako teknologia</b>	Donostiako UE Politeknikoa	8	4	4
<b>Lankidetzaren sarrera eta giza garapenerako teknologia</b>	Gasteizko Ingeniaritzako UE	11	6	5
<b>Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntza</b>	Gizarte Langintzako UE	21	20	1
<b>Garapenerako Lankidetzaren eta Komunikazioa</b>	Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	18	17	1
<b>Garapenerako Lankidetzaren Solidarioa</b>	FHZF	20	19	1
<b>Garapenerako eta Lankidetzaren Egungo Erreakzio Ekonomian Globala</b>	Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	34	21	13
<b>Hezkuntza eta Lankidetzaren Garapenerako</b>	Donostiako Irakasleen UE	26	21	5

149 pertsonak parte hartu zuten ikastaro monografiko horietan; 114 emakume (% 78) eta 30 gizon (% 22).

Beste bi ikastaro monografiko ere eskaini ziren (Medikuntza Fakultatean eta Psikologia Fakultatean), baina ez ziren eman, behar adina jende matrikulatu ez zelako. Hau da, ez zen ikastaroa gauzatzeko beharrezko 10 pertsonako kopurua bete.

Ikastaro monografikoetako saioak ematen dituzten hizlari gehienak unibertsitateko irakasleak, Euskadiko GGKEtako langileak edo gurekin lankidetzaren hitzarmenak dituzten unibertsitate elkarteetako kideak dira. Besteak beste, GGKE hauek hartu dute parte ikastaro monografikoetan:



Economistas Sin Fronteras, Mugarik Gabe, Haurralde Fundazioa, Medicus Mundi Gipuzkoa edo ISF (Ingeniería Sin Fronteras).

#### **4.7. Estatu mailako unibertsitate lankidetzarako sareetan parte hartzea.**

G-9 taldeko unibertsitateen eta Afrikako beste 4 unibertsitateen arteko lankidetzara programa bat egiten lagundu genuen. G-9 taldea irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta honako autonomia erkidego hauetako unibertsitate publikoek osatzen dute: Kantabria, Gaztela-Mantxa, Extremadura, Balear Uharteak, Errioxa, Nafarroa, Oviedo, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Zaragoza). Bulegoak estatuko 9 unibertsitateen eta Afrikako 4 unibertsitate publikoren (Kenya, Uganda, Tanzania eta Etiopia) arteko lankidetzara programa bat identifikatzeko eta egiteko prozesua zuzendu zuen. Programaren helburua Saharaz azpiko Afrikako eskualdeetan osasuna eta sexu eta ugalketa eskubideak sustatzea izan zen, genero ikuspegitik. Lanak 2011ko uztailean Hawassan (Etiopia) egindako nazioarteko mintegi baten koordinazioa barne hartzen zuen: "Unibertsitateko prestakuntza arautuan osasunaren eta sexu eta ugalketa eskubideen gaiak barneratzeko jardunbide egokiak, genero ikuspegitik begiratuta". AECIDen finantziazioa izan duen proiektu honen asmoa Saharaz hegoaldeko Afrikako biztanleen artean osasuna eta sexu eta ugalketa eskubideak sustatzea izan da, emakumeek osasun zerbitzuak jasotzeko orduan bizi duten diskriminazioa gainditzen lagunduko duen eta emakumeei berdintasuna lortzeko eta beren herritartasunaz gozatzeko ahalmena emango dien genero arloko ikuspegitik.

Horrez gain, 2011ko abenduan lan jardunaldi bat antolatu zen, unibertsitate komunitateari sareko ekimen honen berri emateko eta bertako kideak ekimenean parte hartzera gonbidatzeko.

#### **4.8. Garapenerako lankidetzaren arloko unibertsitate praktikak eta karrera amaierako proiektuak egiteko laguntzen deialdia.**

Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2003ko maiatzaren 13an onartutako garapenerako lankidetzara proiektuetan praktikak egiteko programari esker, ikasleek beren nahitaezko praktikak garapen bidean dauden herrialdeetan lan egiten duten lankidetzara erakundeen proiektuetan egin ditzakete, esperientzia hori beren prestakuntza akademiko-praktikoaren zati bihurtuz.

2003/04 ikasturtean programa hau martxan jartzean, erantzuna eman zitzaion Unibertsitateak munduko desberdintasunez kontzientziatutako eta gizartearen aurrerapenari eragiten dioten arazoei buruzko eztabaidetan parte hartzeko gaitasuna duten profesionalak prestatzeko zuen asmoari. Horretarako, UPV/EHUk mota horretako eskaintza instituzionalizatu du eta horien iraunkortasuna eta hezkuntza eragina bermatzen ditu. Programa honako printzipio hauetan dago oinarrituta:



a) Garapen proiektuetan egindako praktikek prestakuntzarako duten garrantzia aitortzen du: ikasleek beren prestakuntza akademikoa eta profesionala hobetzen dute, ikaskuntza berriak eta gaitasun berriak garatzeko aukerak ematen dizkieten esperientziak biziz.

b) Ikasleek garapenerako lankidetzarako motibazio handia izan behar dute: gure gizarteak baino zailtasun gehiago eta baliabide gutxiago dituzten gizarteetan, eta desberdintasun ageriak dituztenetan, laguntzeko gogoak praktika interesgarri eta aberasgarriak egiteko gogoaren gainetik egon behar du. Bai alderdi pertsonalean bai profesionalean.

c) UPV/EHUren eta garapenerako lankidetzaren arteko lankidetzaren sustatzen dute, ikasleek praktikak behar bezala gauzatzen dituztela eta sentsibilizazio jarduerak unibertsitate komunitatean eragina dutela bermatzeko.

Funtsean, deialdi honek bi helburu nagusi ditu:

a) Hegoaldeko herrialdeetako garapen proiektuetan lankidetzaren aritu nahi duten ikasleei aipatutako elkarlana praktikaldi akademikoak egiten dituzten bitartean gauzatu ahal izateko erraztasunak ematea.

Ildo horretatik, programak jarduera hauek gauzatzea ahalbidetzeko laguntza ekonomikoak ematen ditu (bi modalitateetan sailkatuta):

- A) UNIBERTSITATE PRAKTIKAK GARAPENERAKO LANKIDETZAREN arloan egitea, garapen bidean dauden herrialdeetan, ikasleek beren prestakuntza akademikoan eskuratutako elementu teorikoak eta praktikoak bereganatu dituzten, errealitate soziala ebaluatzeko eta aldaketa sozialerako estrategiak planifikatzeko gaitasunak indartu dituzten, eta problematika sozialen prebentzioa, murrizketa eta konponbidea landu dituzten, beren prestakuntzak barne hartzen dituen funtzio profesional desberdinen bidez.

- B) KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUAK garapen eta/lankidetzaren arloan egitea, unibertsitate eskoletako eta ingeniari eta arkitekturen goi eskoletako ikasleek beren karreraren eskuratutako ezagutzak GGKEetan eta lankidetzaren erakundeetan sortzen diren "arazo teknikoak" konpontzeko aplikatu dituzten, karrera amaierako proiektuak eginez.

Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak ikasleentzako 750 euroko laguntza ekonomiko bat kudeatzen du, bidaia ordain dezaten. Kudeaketa hori praktiketako irakasle tutorearekin eta karrera amaierako proiektuen tutorearekin koordinatuta gauzatzen da.

b) UPV/EHUK garapenerako lankidetzaren erakundeekin bideratutako duen elkarlana formalizatzea, bai ikasleek praktikak egin ahal izateko bai unibertsitateko kideen artean sentsibilizazio eta prestakuntza jarduerak burutu ahal izateko.

Proiektuan interesa duten beste erakunde batzuek, esaterako EUSKO JAURLARITZAK eta EUSKAL FONDOAK (Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Udalen laguntza ekonomikoarekin) emandako diru-laguntzei esker, 2011/12 ikasturte honetan beren praktikak eta karrera amaierako proiektuak garapenerako lankidetzaren arloan egin dituzten ikasleen kopurua areagotu ahal izan dugu.



#### 4.8.1. Programaren faseak eta jarduerak.

Faseak	Jarduerak	Helburuak	Egutegia
Ikasleen eta GGKEen arteko lehen harremana	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastegi bakoitzean programaren berri ematea</li> <li>- GGKEak ikastegietan aurkeztea.</li> </ul>	Programan parte hartu nahi duten ikasleak eta GGKEak identifikatzea	Apirila
Praktiketarako eta karrera amaierako proiektuetarako deialdia	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Deialdiaren hedapena eta ebazpena</li> <li>- Ikastegi eta GGKE bakoitzaren arteko hitzarmena sinatzea</li> <li>- Ikastegi bakoitzeko programaren Jarraipen Batzorde bat zehaztea</li> </ul>	Laguntza ekonomikoak esleitzea, irizpide objektiboak oinarritzat hartuta	Maiatza eta ekaina
Ikasleen lankidetzeta eta prestakuntza GGKEetan	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Tutoreak eta begiraleak izendatzea</li> <li>- GGKEetarako praktika plana eta "lankidetzeta eta prestakuntza" plana prestatzea</li> <li>- Lankidetzeta eta prestakuntza planean adostutako jarduerak burutzea (besteak beste, ikastaro monografikoak)</li> <li>- GGKEak ikaslearen gaineko ebaluazio txostena aurkeztuko du</li> </ul>	Praktikak egiteko ikasle onenak hautatuko dira	Urritik praktiken lekura bidaiatu arte
Praktikak gauzatzea, horien segimendua egitea eta ebaluatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleek praktikak egingo dituzte garapen bidean dauden herrialdeetan</li> <li>- "Beste begiraleak" jarraipena egingo die praktikei, eta txostenak bidaliko ditu</li> <li>- Parte hartzen duten eragileek praktiken ebaluazioa egingo dute</li> </ul>	Praktikak gauzatzea eta horien arrakasta bermatzea	Urtarriletik irailera



#### 4.8.2. Programaren bilakaera eta emaitzak.

Argi dago praktika programa honek emaitza positiboak dituela bertan parte hartzen duten ikasleen sensibilizazioari eta jarrera solidarioen sustapenari dagokionez. Gainera, UPV/EHUko ikasleek gero eta interes handiagoa agertzen dute mota honetako praktketan. Beraz, abian jarri zenetik orain martxan dagoen 9. ediziora arte, guztira **14 unibertsitate ikastegitako 636 ikaslek** hartu dute parte programan. **Ikasle horiek** gutxi gorabehera **23 herrialdetan** izan dira (Latinoamerikan, Afrikan eta Asian), beren praktikak hogeita hamar GGKEk batera finantzaturako garapen proiektuen esparrua egiten.

1. taula: Programako parte-hartzaileen bilakaera, generoaren arabera.

2.

	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09	2009/10	2010/11	2011/12	Total	%
<b>Ikasleak</b>	52	57	59	108	73	69	65	74	78	635	100
<b>Emakumeak</b>	43	43	51	94	57	58	47	66	62	521	81.70
<b>Gizonak</b>	9	14	8	14	16	11	18	8	16	114	18.30



**2. taula: Parte-hartzaileak ikastegiaren arabera.**

	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09	2009/10	2010/11	2011/12	Guztira
<b>Irakasleen Unibertsitate Eskolak</b>	22	25	30	54	29	30	30	25	32	277
<b>Gizarte Langintzako UE</b>	3	5	4	7	7	6	4	2	6	44
<b>FHZF</b>	1	1		11	3	8	4	5	14	47
<b>Psikologia F.</b>	3	6	12	10	17	18	18	19	17	120
<b>Medikuntza eta Odontologia F.</b>	23	16	13	18	17			1	1	89
<b>Farmazia F.</b>						2	2	6	3	13
<b>Donostiako Erizaintzako UE</b>				2				4	2	8
<b>Zientzia eta Teknologia F.</b>		3								3
<b>Ingeniaritzak</b>		1		6		5	3	6	1	22
<b>DAGET</b>							2		1	3
<b>Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.</b>							2	6		8
<b>Arte Ederren F.</b>									1	1
<b>Guztira</b>	<b>52</b>	<b>57</b>	<b>59</b>	<b>108</b>	<b>73</b>	<b>69</b>	<b>65</b>	<b>74</b>	<b>78</b>	<b>635</b>



### 3. taula: Praktiketako ikasleen helmugako herrialdea

	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09	2009/10	2010/11	2011/12	total
Argentina		2	5	7	11	8	15	12	10	70
Bolivia			2	2		8	4	9	5	30
Brasil								2		2
Kamerun	2							2		4
Kongo						1				1
Ekuador	10	3	15	11	27	23	10	18	23	140
Etiopia						1			1	2
El Salvador		4	2				2	1	1	10
Guinea Ekuatorial		1	2	2	2		1	1		9
Guatemala	6	13	3	11	1	1			1	36
Nikaragua	5	9	9	43	5	7	7	4	4	93
Haiti								2		2
Honduras	24	16	13	18	17					88
India		1			5		2		3	11
Mexiko		1		2		1				4
Mozambique						5	6	6	9	26
Palestina								2		2
Nigeria									1	1
Peru	5	3	2	3		4	4	10	13	44
Dominikar Errepublika		3	4	7	3	5		4	5	31
Ruanda						1				1
Senegal			2							2
Sahara						2	11			13
Uganda								1		1
Venezuela		1		2	2	2	3		2	12
<b>Total</b>	<b>52</b>	<b>57</b>	<b>59</b>	<b>108</b>	<b>73</b>	<b>69</b>	<b>65</b>	<b>74</b>	<b>78</b>	<b>635</b>





Praktika programak gauzatzeko leku nagusiak Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako herrialdeak dira, Asiako eta Afrikako herrialdeekiko alde handiarekin. Ikasle gehien jaso dituzten herrialdeak Ekuador, Honduras, Nikaragua eta Argentina dira. Guztira, 4 herrialde horiek mota honetako praktikak eta karrera amaierako proiektuak egin dituzten ikasleen % 72 hartu dituzte.

### **PRAKTIKEN ETA KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUEN PROGRAMAREN emaitza esanguratsuenak:**

- ✚ Ikasleek pobrezia eta iparralde-hegoalde desberdintasunen arrazoi posibleen kontzientziario lan bat egiteko aukera izaten dute, programaren helburuak betez, ikasleek igorritako txostenek adierazten duten moduan. Ikasleek balio berezia ematen diote beste kultura batzuetatik ikasteko aukerari eta beren testuingurutik horren urrun dauden egoeretan moldatu behar izateak dakarren erronkari.
- ✚ Ikasle askok, Euskal Herrira itzultitakoan, praktikak egin dituzten komunitateekin egindako harremanei beren horretan eusteko gogoia adierazten dute. Hori dela eta, kasu batzuetan GGKEari laguntzen jarraitzen dute, eta, beste batzuetan, solidaritate eta/edo lankidetzaren espazio berriak sortzen dituzte.
- ✚ Praktiketara dauden ikasleak UPV/EHUren eta helmugako herrialdeen arteko kontakturako lotura bihurtzen dira, Unibertsitatearen eta helmugako hezkuntza erakundearen artean harremanak ezartzen baitituzte. Harreman horiek ezagutza eta lankidetzaren prozesu zabalagoak jartzen dituzte martxan.

Aipamen berezia merezi du **Kultura Arteko Hezkuntza Elebidunarekiko Unibertsitate Arteko Lankidetzaren Programak**. Izan ere, UPV/EHUren berezko programa denez, hainbat jarduketara ildo garatzen ditu irakaskuntzaren, ikerketaren eta aholkularitza tekniko-pedagogikoaren arloetan. UPV/EHUren Gasteizko Irakasleen Eskolak zuzendutako proiektu honek praktikak egiteko aukera ematen die gure ikasle askori.



## 5. GENERO IKUSPEGIA DUEN AURREKONTUA.

### LANKIDETZA BULEGOAREN TXOSTENA

2010-01-12

Iratxe Amiano<sup>1</sup>  
Estíbaliz Martínez  
Unai Etxeberria  
*Garapenerako Lankidetza Bulegoa*  
UPV/EHU

Txosten hau egiteko arrazoia da UPV/EHUn genero ikuspegia instituzioaren aurrekontu azterketetan sartzea hausnartzen ari direla.

Testuinguru horretan, txostenak Lankidetza Bulegoaren gastuaren hasierako azterketa labur bat barne hartzen du, ikuspegi berdintasunaren alderdia kontuan hartuta. Aurrekontuen azterketan genero ikuspegia sartuz gero, Lankidetza Bulegoak gauzatutako jarduera nagusiak aztertzean, alderdi hauek hartuko dira kontuan: lortu nahi diren helburuak, esleitutako baliabideak eta antolatutako jardueretan parte hartzen duten pertsonen sexua. Hasierako hausnarketa horretatik abiatuta, azterketa honek bi helburu nagusi ditu: gauzatutako jardueren segimendua eta ebaluazioa egin ahal izateko behar adina datu lortzea, jarduerak gauzatzen dituzten taldeekin loturak ezarriz; eta genero berdintasunerako aurrerapausoak emateko proposamenak egitea.

Txosten honetan, 2011ko ekitaldiko gastua eta 2012ko ekitaldirako aurreikuspenak hartuko dira erreferentzia gisa.

#### 1.- Sarrera.

*UPV/EHUn Garapenerako Lankidetza Bulegoan* nahitaezkoztat jotzen dugu lanari genero ikuspegia ematea, genero desberdintasunik gabeko gizarte baten alde lan egiteko. Genero ikuspegiak zeharkako tresna bat izan behar du lan esparru guzti-guztietan; beraz, baita aurrekontuen esparruan ere.

Funtsezkoa da genero aldeak murrizteko helburua lortzeko erabiltzen diren baliabide ekonomikoak ezagutzea; izan ere, baliabide ekonomikorik gabe oso zaila izango da helburu hori betetzea.

Horregatik, *Garapenerako Lankidetza Bulegoan*, aurrekontu zehatza eta bereizia egingo da, genero desberdintasunak murriztearen alde egindako lana agerian gera dadin.

---

<sup>1</sup> Yolanda Jubeto Ruiz eta Mertxe Larrañaga Sarriegiren aholkularitzarekin. Ekonomia Aplikatua I Saila (UPV/EHU).



## 2.- Langileen azterketa.

*Garapenerako Lankidetzaren Batzordeak* hiru langile barne hartzen ditu (bi emakume eta gizon bat), honako lanpostu hauetan banatuta:

- Administrari laguntzailea (emakumea)
- Kudeaketa orokorrerako teknikaria (emakumea)
- Garapenerako lankidetzaren teknikaria (gizona)

Administrari laguntzailearen eta kudeaketa orokorrerako teknikariaren postuak finkoak dira; garapenerako lankidetzaren teknikariaren kontratua, aldiz, aldi baterako da (Eusko Jaurlaritzarekin egindako hitzarmen baten bidez finantzatuta).

UPV/EHUren Lankidetzaren Bulegoa Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzaren menpe dago, eta bertako zuzendaria emakumezkoa da.

Ez dugu 1. kapitulua, genero ikuspegiari dagokionez, sakonago aztertuko; izan ere, Lankidetzaren Bulegoak ez du bertako langileak hautatzeko eta kontratatzeko ahalmenik eta, beraz, aterako ondorioak ez dira inpartzialak izango. Hori horrela, partida hau UPV/EHUri dagokion 1. kapitulua bere osotasunean aztertzen den unean aztertuko da.

## 3.- Bulegoaren 2011ko aurrekontu bateratua, Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzaren aurrekontuaren testuinguruan.

Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak alderdi hauek kudeatzen ditu: UPV/EHUK garapenerako lankidetzarako bideratzen duen aurrekontua, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmen bat (garapenerako lankidetzaren arloko *practicuma* indartzeko), Euskal Fonda elkartearekin sinatutako hitzarmen bat (*practicuma* edo karrera amaierako proiektua garapenerako lankidetzaren arloan egiten duten ikasleentzako beka finantzatzeko) eta % 0,7 Elkartasun Fonda. Azken hori ikasleen ekarpenei esker lortzen da, izan ere, hala nahi duten ikasleek % 0,7 gehiago ordaintzen dute beren matrikula formalizatzean, garapenerako lankidetzara bidera dadin.

Gastuaren helburuari dagokionez, hauek dira 2011n gauzatutako programetara bideratutako zenbatekoak:



1. taula. Lankidetza Bulegoaren aurrekontu bateratua, 2011

BATERATUA	Zenbatekoa	%	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	Taldea
<b>1. kapituluak. Langileak</b>	<b>73.042,9</b>		<b>2</b>	<b>1</b>	<b>% 66,67</b>	<b>% 33,33</b>	
<b>2.-6. kapituluak</b>							
<b>AECID beken kudeaketa</b>	5.641,81	% 3,6	4	2	% 66,67	% 33,33	Irakasle eta ikertzaileak/AZPko langileak
<b>Garapenerako lankidetzako lanaldiak</b>	371,65	% 0,2					Irakasle eta ikertzaileak/AZPko langileak/ikasleak
<b>Administrazio gastuak</b>	5.800,84	% 3,7					
<b>Garapenerako lankidetzarako proiektuen eta ekintzen deialdia</b>	55.000	% 35	5	2	% 71,43	% 28,57	Irakasle eta ikertzaileak/AZPko langileak/ikasleak
<b>Garapenerako lankidetzaren arloko ikastaro monografikoak</b>	20.752,66	% 13,2	132	23	% 85,16	% 14,84	Ikasleak
<b>KAPeko eta practicumeko ikasleentzako bekak</b>	63.026,91	% 40,1	47	15	% 75,81	% 24,19	Ikasleak
<b>Practicumeko arduradunaren bidaiak</b>	1.707,14	% 1,1	1	1	% 50	% 50	Irakasle eta ikertzaileak
<b>Garapenerako hezkuntzaren deialdia</b>	5.000	% 3,2					Ikasleak
<b>2.-6. kapituluak guztira</b>	<b>157.301,01</b>	<b>% 100</b>					
<b>GUZTIRA</b>	<b>230.343,91</b>						



Horretarako, finantziazio hau izan dugu eskuragarri:

<b>2. taula. Lankidetzaren Bulegoaren finantziazioa, 2011</b>		
UPV/EHU	104.960,95	% 46
Ikasleen % 0,7 Elkartasun Fonda	20.000	% 9
Eusko Jaurlaritzarekin egindako hitzarmena	90.382,96	% 39
Euskal Fondaekin egindako hitzarmena	15.000	% 7
<b>Guztira</b>	<b>230.343,91</b>	<b>% 100</b>

#### 4.- Programa edo ekintza esanguratsuenen hautaketa.

Hona hemen aurrekontuan duten pisuagatik esanguratsuenak diren Bulegoaren 2011ko ekintzak zehaztuta (1. kapitulukoak alde batera utzita):

- ✓ Ikasleei beren practicum eta karrera amaierako proiektua garapenerako lankidetzaren arloan egiteko emandako bekak.
- ✓ Garapenerako lankidetzari lotutako proiektuen eta ekintzen deialdia.

Kuantitatiboki horren garrantzitsuak ez diren beste partida batzuk ere aurkeztuko ditugu (aurreko partiden osagarri izanik ere, estrategikoak dira zerbitzu honek gauzatzen dituen jardueretarako):

- ✓ Ikasleei zuzendutako garapenerako lankidetzaren arloko ikastaro monografikoak.
- ✓ Garapenerako hezkuntzaren arloko proiektuen deialdia.

#### 5.- Hautatutako programen azterketa:

- ✓ **Ikasleei beren practicum eta karrera amaierako proiektua garapenerako lankidetzaren arloan egiteko emandako bekak.**

Beken programa honek aurrekontuaren % 40 hartzen du. Bere helburu nagusia unibertsitate komunitatea sensibilizatzea eta lankidetzaren solidarioarako jardueretan parte hartzea bultzatzea da, garapenerako lankidetzaren erakundeekin (GGKEak eta beste batzuk) elkarlanean arituz. Erakunde horiek UPV/EHUko ikasleei beren karrera amaierako praktikak garapen bidean dauden herrialdeetan martxan dituzten proiektuetan egitea ahalbidetzen diete.

Programa honek helburu espezifiko hauek ditu, besteak beste:

- a) Hegoaldeko herrialdeetako garapen proiektuetan lankidetzan aritu nahi duten ikasleei aipatutako elkarlana praktikaldi akademikoak egiten dituzten bitartean gauzatu ahal izateko



erraztasunak ematea. Programa honek jarduera hauek gauzatu ahal izateko laguntza ekonomikoak ematen ditu:

\_ A modalitatea) **Unibertsitate praktikak garapenerako lankidetzaren** arloan egitea, garapen bidean dauden herrialdeetan, ikasleek beren prestakuntza akademikoan eskuratutako elementu teorikoak eta praktikoak beregana ditzaten, errealitate soziala ebaluatzeko eta aldaketa sozialerako estrategiak planifikatzeko gaitasunak indartu ditzaten, eta problematika sozialen prebentzioa, murrizketa eta konponbidea landu ditzaten, beren prestakuntzak barne hartzen dituen funtzio profesional desberdinen bidez.

\_ B modalitatea) **Karrera amaierako proiektuak** garapen eta/lankidetzaren arloan egitea, unibertsitate eskoletako eta ingeniari eta arkitektoen goi eskoletako ikasleek beren karreraren eskuratutako ezagutzak GGKEetan eta lankidetzaren erakundeetan sortzen diren "arazo teknikoak" konpontzeko aplikatu ditzaten, karrera amaierako proiektuak eginez.

b) UPV/EHUK garapenerako lankidetzaren erakundeekin bideratuko duen elkarlana formalizatzea, bai ikasleek praktikak egin ahal izateko bai unibertsitateko kideen artean sentsibilizazio eta prestakuntza jarduerak burutu ahal izateko.

Funtsean, partida hori Euskal Fondoak (% 25) eta Eusko Jaurlaritzak (% 75) finantzatu dute.

Beka horiek graduko ikasleei zuzenduta daude, eta guztira 62 pertsonak jaso dituzte: 47 emakume eta 15 gizon (% 76 emakumeak eta % 24 gizonak).

✓ **Garapenerako lankidetzari lotutako proiektuen eta ekintzen deialdia**

Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak deialdi bat egiten du urtero, UPV/EHUko unibertsitate komunitateko kideak garapenerako unibertsitate lankidetzaren arloko proiektuetan edo ekintzetan parte hartzera bultzatzeko. Proiektu edo ekintza horiek pobretutako herrialdeetako biztanleen bizi eta prestakuntza baldintzak modu eraginkorrean hobetzen laguntzen dute.

Horretarako, UPV/EHUK diru-laguntzak ematen ditu bertako unibertsitate komunitateko kideek gauzatutako garapenerako lankidetzaren proiektuak edo ekintzak guztiz edo partzialki finantzatzeko. Proiektu horiek hainbat arlotakoak izan daitezke: irakaskuntza eta prestakuntza; garapenerako ikerketa aplikatua; informazioaren, ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia; garapen bidean dauden herrialdeetako unibertsitateen sendotze instituzionala; eta garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza.

Partida honek aurrekontu osoaren % 35 hartzen du.

2011/12 ikasturteko deialdian 7 eskaera jaso ditugu (4 gizon eta 3 emakume; % 57 gizonak eta % 43 emakumeak) eta ez dugu kanpoko finantziatorik izan.

2011. urtean, lehen aldiz, proiektuak eta ekintzak sexuaren arabera bereizitako datuekin aurkeztea kontuan hartuko da laguntza emateko baremazioa egitean. Hori dela eta, proiektuak



kudeatzen dituzten pertsonak beren ekintzek gizonengan eta emakumeengan duten eragina aztertu behar dute nahitaez.

#### ✓ **Garapenerako lankidetzaren arloko ikastaro monografikoak**

Programa honen helburua hegoaldeko errealitateak gerturatzea eta UPV/EHUko ikastegietako ikasleei iparralde-hegoalde arteko botere harremanen desberdintasunei eta horien ondorioei buruzko informazioa eta balio hezkuntza ematea da. Ikastaro monografikoetan generoaren gaia lantzeko ahalegina egiten da, arlo hauek landuz: generoa eta garapena, sexu eta ugalketa eskubideak, emakumeen aurkako indarkeria garapenerako oztopo gisa.

Horrez gain, ikastaroen edukiak dagokien titulazioetara daude egokituta, eta garapenerako lankidetzaren proiektuetan praktikak egin nahi dituzten ikasleek nahitaez hartu beharko dute parte horietan.

Aurrekontuaren % 13,2 bakarrik hartzen badu ere, programa honek garrantzi handia du Bulegoak antolatzen duen garapenerako hezkuntzaren ildoak garatzeko orduan.

Ikastaro horiek finantzatzeko, UPV/EHUren ekarpenaz gain (% 33), Ikasleen % 0,7 Elkartasun Fondoaren (% 24) eta Eusko Jaurlaritzaren (% 43) laguntza ere jaso dugu.

Berrogeita hamabost pertsonak hartu dute parte ikastaro monografiko horietan (% 85 emakumeak eta % 15 gizonak).

#### ✓ **Garapenerako hezkuntzarako deialdia**

Deialdi honen helburua UPV/EHUko unibertsitate elkarteek eta ikasleek garapenerako hezkuntza proiektuetan parte hartzea da. Proiektu horiek unibertsitate komunitatean kontzientzia kritikoa eta konpromiso solidarioa sortzen lagunduko dute, gizartea eraldatzeko ekintzen bidez.

Deialdi honek unibertsitate elkarteek gauzatutako garapenerako hezkuntzaren arloko proiektuak guztiz edo partzialki finantzatzeko diru-laguntzak ematen ditu. Proiektu horien onuradunak UPV/EHUko ikasleak izango dira kasu guztietan.

Kuantitatiboki pisu txikia badu ere (aurrekontu osoaren % 3,2), garapenerako hezkuntzako proiektuak gauzatzeko funtsezko lan ildoak da. Partida hau Ikasleen % 0,7 Elkartasun Fondoak finantzatzen du bere osotasunean.

Duela gutxi sortu da deialdi hau, eta oraindik ez dugu bere aplikazioak izandako eraginaren sexuaren arabera daturik.



## Hausnarketa orokor bat

UPV/EHUren Lankidetzaren Bulegoak kudeatutako jardueren eraginaren azterketa kuantitatiboa egitean, portzentajea sexuaren arabera aldatu egiten dela ikus dezakegu. Guztira, programa guztiak kontuan hartuta, Bulegoaren jarduerak 297 pertsonari eragiten diete zuzenean; horietatik 185 emakumeak dira (% 62) eta 112 gizonak (% 38).

Alderik nabarmenena ikasleei bakarrik zuzendutako programetan ikus daiteke, bai ikastaro monografikoei dagokienez (% 85 emakumeak dira) bai practicumari eta karrera amaierako proiektuei dagokienez (programa egin duten 4 pertsonatik 3 emakumeak dira).

Emakumeen parte-hartzearen aldeko joera aldaketa horren arrazoietakoa bat da 2011. urtean emandako *ikastaro monografikoak* emakumeen presentzia argia duten ikastegietan egin direla (esaterako, Irakasleen Unibertsitate Eskolak, Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola edo Farmazia Fakultatea).

Antzeko zerbait gertatzen da practicumari edo karrera amaierako proiektua garapenerako lankidetzaren proiektuetan gauzatzeko laguntzekin; izan ere, aukera hori eskaintzen duten ikastegi gehienetan ikasleen gehiengoa emakumezkoek osatzen dute.

## 6. Hobekuntza proposamenak

Bulegoak kudeatzen dituen jardueretan parte hartzen duten ikasleen "feminizazio" hori "hausteko", 2012. urterako ikastaro monografikoak hobeto planifikatzeko ahalegin bat egin da, ikastegi gehiagotara iritsi ahal izateko eta ikasleen gehiengoa gizonzkoek osatzen duten ikastegiei arreta berezia eskaintzeko.

2012ko ekitaldirako, informazio jasotzeko dugun sistema hobetzen saiatuko gara, gure jarduerak bakoitzak gizonengan eta emakumeengan duen eragina hobeto ezagutu ahal izateko. Horretarako, parte-hartzaileen sexuari buruzko informazioa sartuko dugu gure galdera-sorta guztietan (bai izena emateko erabiltzen direnetan bai ebaluazioa egiteko balio dutenetan).

Era berean, Lankidetzaren Bulegoak martxan dituen laguntza edo diru-laguntza deialdi guztietan, aurkeztutako proiektuen genero ikuspegiaren azterketa nahitaez sartzen jarraituko dugu, baita Bulegotik genero ikuspegia dagokion moduan gauza dadila bermatzeko aholkularitza zerbitzu bat ematen ere. Horrez gain, Lankidetzaren Bulegoak bertatik aurkeztutako lankidetzaren proiektuek barne hartzen dituzten gaien segimendu bat, genero ikuspegiari dagokiona, gauzatuko du.

Bestalde, 2012an genero ikuspegia funtsezko erreferentzia gisa duten lan ildoak sendotzen saiatuko gara. Hala, Afrikako 4 unibertsitaterekin batera gauzatu nahi den "Sexu eta Ugalketa Eskubideak" proiektuan aktiboki parte hartu nahi dugu, G-9 taldearen esparruan.